

Patxi Azpillaga: “Euskal komunikazioari indarra eman nahi diogu Euskal Hedabideen Behategiaren bidez”

[Ikusi Patxiren bideoa](#)

Euskal hedabideen egoera hizpide hartuta, hausnarketa egiteko garaia heldu da. UEUko 42. edizioaren barruan antolaturiko ‘Euskal komunikazio-eremua: ikerketa eta ekintzarako gure bideen bila. Euskal Hedabideen Behategirantz’ jardunaldian, hiru ideia nagusi azpimarratu dituzte: Euskal komunitatearen barruan hedabideek daukaten garrantzia, horien arteko elkarlana eta gainditu beharreko erronkak. Horretaz gain, etorkizunari begira, Euskal Hedabideen Behategia egitasmoari buruzko zenbait argibide eman dituzte; nola jaio eta garatu duten proiektua, hain zuzen ere. Eibarko Markeskoan izan dira, Patxi Azpillaga UPV/EHUko irakaslearen gidaritzapean.

Euskal komunikazio eremutik Euskal Behategirantz. Hori izan da jardunaldi honen funtsa. Izan ere, euskal komunitatearen egoera zein den hausnartzeaz gain, Euskal Hedabideen Behategirantz jo dute jardunaldiaren partaideek. Patxi Azpillagaren Euskal komunikazioaren ikerketaren kartografia kritikoa ponentziak ireki du jardunaldia. Horrean ostean, Destuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta UPV/EHUko irakasle batzuen ikerketa lanen berri izan dute, euskal eremuan horien balioa azpimarratuz horrela. Azkenik, Euskal Hedabideen Behategia lan egitasmoa aurkeztu dute.

Ildo horri jarraiki, Azpillagak dio behategi bat antoltzea dela haien erronka nagusia. HEKIMENen (Herri ekimeneko hedabideen elkarte) eta berarekin batera, Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitateko hainbat irakasleren indarrak batuta, egitura edo proiektu bat gorpuztu nahi dute. Egitasmo honek aurkezten dituen eginkizunei dagokienez, euskarazko hedabideei eta orobat, euskarazko komunikazioari beste ikuspen bat emateaz arduratuko dira eta horretaz gain, herri ekimeneko hedabideekin lan egingo dute, bai beraien errealitatea ezagutzeko, eta baita beraien beharretara egokitzeko bidea egingo dute. Horretarako, beren interesen arabera ikerkuntza lanak zeintzuk diren ikustea ezinbestekoa dela azaltzen du Azpillagak: “Funtsean, izango litzateke denon artean gorpuztea eta indarra ematea euskal komunikazio eremu horri. Proiektuak eta estrategiak garatzeko tresna moduko bat bezala ulertu behar dugu. Sare moduko bat izatea nahi dugu momentuz”. Bertan, unibertsitateak, hedabideak eta ahal dela administrazioa elkarrekin lan egitea dute xede, batez ere ezagutza eta ikuspena sortzen eta bide batez, ezagutzarekin batez ere sektorea hobetzen saiatuko dira.

Horretaz gain, krisi garai honetan, euskal hedabideek jokatzen duten paperaz aritu da Azpillaga. Irtenbide bakarra: indarrak batzea. “Euskal komunitateak duen erronkari aurre egingo diogu. funtsean: indarrak batzea, elkar aitortzea eta elkarrekin joatea”. Alde horretatik, euskal hedabideek daukaten indar ekonomikoa eta administrazioaren laguntza, egungo egoerari aurre egiteko beharrezkoak direla aipatzen du. “Denon artean, egitura sendoago edo egokiago bat, zeinarekin atera ahal izango litzaiokeen etekin handiagoa laguntza publikoari, dena hobeto antolatzen badugu”. Euskararen etorkizunari buruz ere mintzatu da. Neurri batean, hedabideen esku dagoela dio: “Komunikazioaren baitan dago euskararen biziraupena”.

Oro har, euskal hedabideak garapen teknologikoetara egokitu behar direla aipatzen du Azpillagak: “Euskal hedabideak mundu horretan sartu behar dira eta saiatu behar dira aprobetxatzen taldeen aukerak beren onerako, euskal komunikazioa gehiago zabaltzeko”. Halere, euskal hedabideak txikiak direla aipatzen du eta horrek muga dezakeela hein handi batean.

Arantxa Iparragirre, Udako ikastaroetako ikaslea: “Ikastaro honetatik gehien harritu nauena, dena praktikoa dela izan da”

Udako ikastaroetako ikasleen erdia berria izan ohi da. Arantxa Iparragirre beasaindarraren kasua horixe da. UEU ez zuen ezagutzen eta aurrean bi ikastaroetan eman du izena. “Musikaren erabilera eta bizipena haur hezkuntzan” ikastarotik atera dugu, bere esperientzia konta diezagun. Oraingoz gustora dabil.

Zergatik matrikulatu zara ikastaro hauetan?

Barruan denok altxor bat daukagula sentitu dut beti. Azken urteetan umeekin izan ditudan esperientzietan ondo moldatu naizela uste dut, baina barrenean gauza gehiago nituela sentitzen nuen. Barnean nituen gauza horiek ateratzeko premia nuen eta horretarako teknika berriak ikasi behar nituen. Azkenekoz, umeekin monitore gisa egoteko kurtso bat burutu dut. Bertan praktiketan nengoela, koordinatzaileak, zenbait gauzetan gogo espeziala jartzen nuela konturatu zen. Denok daukagu ahalmen berezi batzuk zenbait gauzentzako eta hark nireak ikusi zituen. Kurtsoa amaitzean, gaien interesa nuela ikusirik, koordinatzaileak ikastaro hauen berri eman zidan. Ikastaroen izenburuak irakurri bezain laster, honakoa esan nion neure buruari: “hau da ni bilatzen ari naizena eta hau da momentua”. Eta hala, honantz zuzendu nintzen.

Ikastaro hauek ba al dute erlaziorik dute zure ikasketekin?

Egia esan ez dut haur hezkuntzako titulazio ofizialik, baina txiki txikitatik bizipen eta esperientzia asko pilatzen joan naiz. Bizitzan asko lagundu zidan 6 urterekin baletan hasteak eta 8 urterekin dantzari. 11 urterekin aldiz, panderoa jotzen hasi nintzen trikitixa munduan, txapelketetan, bodeetan, festetan... 13 urterekin nire anaiarekin abesten hasi nintzen eta bi disko atera genituen merkatura. Askok ikasi nuen esperientzia horretatik eta oso gustura ibili nintzen

musika munduan. Ondoren, kanpora joan nintzen, Ingalaterrara. Bertan, boluntario gisa aritu nintzen ikastola batean eta gero lanerako hartu ninduten. Euskal Herrira bueltatu nintzenean, bide beretik jarraitu nuen. Lehen esan bezala monitore izateko kurtso txiki bat burutu dut eta orain, haur hezkuntzarekin eta musikarekin zerikusia duten ikastaroetan matrikulatu naiz UEUn. Beraz, nahiz eta ez izan haur hezkuntzarekin erlazionaturiko titulazio finkorik, nire bizitzako eboluzioak ekarri nau momentu honetan toki honetara. Azkenean, dena doa erlazionaturik.

Ezagutzen zenuen aurretik UEU?

Egia esan, ez nuen ezagutzen. Haur hezkuntzako koordinatzailearen bidez izan nuen ikastaro hauen berri.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Oso polita. Lehen esan bezala, barrenean neuzkan gauza asko deskubritu ditut. Ikastaroaren bitartez ezagutzen ari naizen teknika desberdinen bidez, barrenean ezkutuan nituen zenbait gauza kanpora ateratzen ari naiz. Normalean kurtso gehienetan, papera eta boligrafoa hartu eta ia denbora guztia teoria hutsa izaten da, azkeneko ordu erditxoan soilik egiten da praktika pixkatxo bat. Kurtso honetatik gehien harritu nauena, dena praktikoa dela izan da. Azken finean, etxera eramaten duzuna, momentu horretan bizitzen duzuna da. Momentuz, “musikaren erabilera eta bizipena Haur Hezkuntzan” ikastaroa burutu dut eta egin ditudan ariketa guztiekin disfrutatu dut. Gure ahalmenak kanpora ateratzeko helburuaz burutako ariketak dira eta horiek praktikan jartzen ditugu. Gainera oso giro ona egon da klasean, bai irakaslearekin eta bai beste ikasleekin. Denok genuen ikasteko gogoia eta irakasleak ehuneko ehuna eman du. Ikastaroa ezinhobeia izan da.



udako
euskal unibertsitatea

BIHARKO AGENDA. Uztailak 2, Asteazkena

Publizitatea euskaratik eta euskaraz: nola asmatu zure erakundearen komunikazioan

Ordua	Edukia	Irakaslea
9:00-11:00	Hizkuntza-kudeaketa eta euskara publikitatean.	Estitxu Garai Artetxe Nerea Etxaniz
11:00-11:30	Atsedena	
11:30-13:00	Media plangintza eraginkorra: kontuan hartu beharreko aldagaiak.	Nerea Etxaniz

NoSQL datu-baseak: MongoDB

9:00-14:00

Gaiak:

- 1. Sarrera.
- 2. NoSQL datu-baseen ezaugarriak.
- 3. Eredu erlazionalarekiko desberdintasunak.
- 4. NoSQL sistema ezagunenak.
- 5. MongoDB.
- Datu-eredua.
- CRUD eragiketak.
- Indizeak.
- Bestelako ezaugarriak: Erreplikazioa (replication) eta partizionatze horizontala (sharding).
- Praktika I: oinarrizko erabilera.
- Praktika II: MongoDBren APIa Java eta Python lengoaietarako.

Irakasleak:

- **Zuhaitz Beloki Leitza:** Informatikan Ingeniaria da, eta Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra egin zuen. Gaur egun, Ixa taldean ikerlari lanetan dabil eta doktorego-tesia egiten ari da.

Twitter: @zbeloki



Ikastaroak jarraitzeko:
<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

Ikastaroak jarraitzeko:
<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI42](#) [#saretu](#)

Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org